

Masiu'tik, 1934'g. orilak 11.

Pierre Lafitte Apez Jaunari.

USTARITZ'en.

Agur, adiskide: Aspaldian zuri idazteko nengon. Egin bearak ez didate utzi orain arte.

Oriotuko zera nola gure igazko Donosti'ko Batzarean artu genduan Euskadi'ko izkuntza-mapa egiteko asmoa. EUAKALTZAINDIAREN LAGUNTZALEAK laister degu egitekoa geren II Batzara ta Ikas-Bilera: uztailaren 2,3,4,ta5'an Eusko Ikaskuntza'k Donostian urtero eratzen dituan Uda-Ikastroarekin bategan, gure DEIA'an ikusiko dezun bezela (egitarauak laister bidaliko dizkitzut). Ikas-Bilera oretan egingo dan ^{itzaldi bat} igaz alpatutako gai areta izango da: Euskadi'ko izkuntza-mapaz. Nere anai Lekuona'tar Imanol'en gain dago Gaiz gertutzen aspaldian ari da, eta Pirenez arunzko Euskeraren mugak jakiteko zure zai dago. Zuk agindu zenigun Donostia'n Pirenez arunzko lana zuk egingo zenigula mapa oni buruz, eta oraintxe garsia iritxi da-ta lenbailen bear genituzke orko Euskeraren mugak.

Ea, beaz, lenbailen galdera oieri erantzuten diezun:

1^on Pirenez arutz zenbat eta zein erietan euskeraz itz egiten da euskera utsean kalean (etxetik at; beaz, etxetan ere bai)?

2^o Zenbat eta zein erietan itz egiten da euskeraz eta erderaz nastuan kalean, eta euneko zenbatek gutxi-gora-bera, a.d., % 20'k, % 50'k etab?

3^o Zenbat eta zein erietan itz egiten da euskeraz etxean bakarik (kalean, ez, galdu dalako), eta zenbatsu etxetan, a.d., % 25 etxetan, % 10 etxetan etab. ?

4^o Zenbat eta zein erietan egiten dira euskera utsez Elizan elizkizunak, itzaldiak, etab.?

5^o Zenbat eta zein erietan, euskera ta erdera nastuan (elizan), eta nola geiago: euskeraz ala erderaz, edo erdiska?

69 Zerbat eta zein erietan, susk erdera utsean (elizan)?

Erantzunak bidali egizkietzu nere anai Imanol'i zuzenbide onekin: Seminario Conciliar.- Vitoria. Ilabete ta erdi besterik ez dira palta Batzarerako eta erantzunak alik laistepren bidaltzeko, arén, eskatzen dizut.

Gaurkoz, naikoa. Laister beste eskutitz bat egingo dizut gure Batzaréko heri txeak emanaz, eta egitaruak eta gafferakoak bidaliko dizkitzut.

Bitartean agindu zure adiakide ta apaizkide nauzun oni.

Sekunatar Martin

Laminoria-Muska.

Efenderi'tik, 1935'g. azaroak 26

Pierre Lafit Apez Jaunari.

U S T A R I T Z'en.

Agur adiskide: Oyartzuar antzeslariak datozkit mesede baten eske: Datofen igandean, Abenduaren 1'ean, Donibane Loitzun'a dijoazela nere antzerkitxo "Eun Dukat" egitera eta ea zuri esango nizuken Ustaritz alde ofetan al dezun propagandarik geien egingo ote zenuken, egun ofetan inguru ofetatik e ere jende asko joan dedin Donibane'ra antzerki ori ikustera.

Jaia afatsaldeko lau ta erdietan asiko da, eta Oyartzuar gizagaizook, jai ori eratzea berehain artu dutenez geroz, beldu dira eralkiak ordaintzeko ainbat aterako ez ote duten ere.

Oyartzuar antzeslari-talde onek --Mendiburu antzes-taldea bere izena-- igaz "Euskaltzaleak" Donostian eratu zuten antzeslari-gudian lenengo saria --500 laurleko-- irabazi zitun "Eun Dukat" antzerki onekin berakin.

Propaganda egiteko gaiak --paperak etab.-- artuko dituzu garaiz Donibane'tik, eta badakit alegiñak egingo dituzula gure antzezkizun onen befia inguru ofetan zabaltzen.

Eskefik beroenak damazkitzut guziagatik eta poz aundia artuko nuke igandez Donibane'n agurtuko ba zinduket.

Agur adiskide eta agindu nai dezuna zure menpeko apaizkide oni

*Lokuañar
Martin*